

# GAU ESKOLAK

Historia osoan zehar euskarak ez du garrantzia berdina izan beti, izan ere, Francoren garaian euskara debekatuta egon zen. Bestalde, gaur egun, gauza asko egin dira jendeak euskaraz ikasteko eta hauekako bat gau eskolak izan dira.

## GAU ESKOLEN HASIERA

Gau eskolak 1960ko hamarkadan hasi ziren Euskal Herri mailan, baina Juan Joxe, gure elkarrizketatua, 1970ean edo 71an hasi zen klaseak ematen, 18 urterekin. Ikastola hauek beharra zegoelako sortu ziren, izan ere, jende helduak hizkuntza honetan alfabetatzen jakin nahi zuen. Hauek, idazten eta irakutzen jakitea zuten helburu, euskaldunak sentitzen ziren eta. Baina noski hau legearen aurka egin behar zen, garai haietan Franco bizi zelako eta ez zeukan onartuta jendeak euskaraz hitz egitea. Herrerako dantza taldekoei ematen zien klase Juan Joxek. Honek, liburu bat zuen, apaiz batek egindakoa “Aita Altuna” deitzen zena. Etxean klaseak prestatzen zituen, eta modu hortara bere euskara hobetzen zuen.



**“Ama baserrikoa eta aita baserrikoa baina nik ez nekien hizkuntza hortan non zegoen ez aditza ez izena eta ez ezertxo ere”.**

Beste alde batetik kontuan hartu behar da Juan Joxe ez zela irakaslea eta irakaskuntzan ibili gabea zela. Ez zuen inoiz inolako klaserik eman eta noski lehen egunetan bera urduri zegoen. 1970ean edo 71an hasi zuen bere ibilbidea gau eskoletan eta 1971ko gabonetan bukatu zuen bere ibilbidea. 1972ko urtarrilean soldadutzara joan behar izan zuen, baina gero bere ordez norbait gehiagok jarraitu zuen dantza eskolekoei klasea ematen.

## EGON ZIREN ARAZOAK

Arazo batzuk egon ziren, baina baita arazo horien konponbideak ere. Klase guzti hauek denbora askoan doakoak izan ziren, izan ere, kausa onuragarri bat izan zen. Urte haietan legearen aurka egotea beharrezkoa zen, ia herriko guztiek euskara ikasi nahi baitzuten. Juan Joxek dioenez, **“Behar bezela gazte jende guztiak, borroka, modu batera edo bestera, borroka egiten zuten ordenaren aurka”.**

Klaseak ematen zituzten pertsonak, hau da, irakalseek, gau askotan esnatu eta jendeari irakatsi egiten zioten nekatuta egon arren. Gure protagonista horrela sentitzen zen, **“Ni oso pozik nengoen, pentsatzen nuelako zerbait egiten ari nintzela herriarentzat. Gainera, nire nahia jende guztia euskalduna izaten zen eta horrek, noski lanerako gogoa pizten zidan”**. Juan Joxek eman zituen klaseetarako, baimenik ez zutela eskatzen eta pixka bat onartuta zegoela esaten du, hau da, nahiko libre zeuden beste klase batzuekin konparatuta. Beraiei, herriko elizak areto bat uzten zien egunero irakasterako momentuan, elizarengatik seguruago egoteko. Areto haiek klaseetako ordutan pribatuak ziren, hau da, bakarrik elizakoak eta klasekoak sartu zezaketen, baina, otoitz egiterakoan, pribatuak izatetik, publikoak izatera pasatzen ziren. Denbora pasa eñean, gau eskolak pixkanaka ordezkaturak izan ziren.

## GAU ESKOLEN AMAIERA

1978. urtetik aurrera gau eskolak gutxiagotzen hasi ziren. Horrekin batera 1980. urtean euskaltegiak sortu ziren AEK, IKA etab... Juan Joxek dioenez,

**“gau eskolak jada fundamentu gehiago zeukaten, eta gure erara eramaten genituen”**

Urteak pasa ahala jendeak euskeraz bazekien, nahiz eta ez ondo hitz egin. Gau eskoletan edozein jende egon zezakeen. Juan Joxek erakusten zuen lekuan, adibidez: Pasaiko jendea zein Donostiako zegoen, nahiz eta Herreran erakusten zuen. Gau eskolen itxieran zentratuz, Juan Joxek dioenez gau eskolak ez ziren itxi;



**“behin askatasun bidea lortu ezkerro zaila zelako berriro istea.”**

Gau eskolak urte askotan beharrezkoak izan izan ziren, eta gaur egun AEK eta bestelako euskaltegiek jende asko lagundu dute, behintzat euskara ulertzen. Lehen esan dugun bezala, deula urte batzuk, ez ziren guztiz legalak, eta gainera oso baliagarri urriekin egiten zuten lan Espainiako udalak ez zuelako euskar hitz egiten ezta ikasten. Juan

Joxeren arabera lehen, ahal zuen gehienak euskaraz hitz egiten zuen, kalean, etxean edo eta lagun artean. Bera gaztea zenean, ahal zuen momentu guztietan euskaraz hitz egiten zuen, baita beste batzuk ere. Gaur egun aldiz

**“denok dakizute eta ez duzute hitz egiten Euskara galtzear dago, eta ez dugu ezer egiten.”**

esaten du Juan Joxek. Eta nolabait egia dela pentsa daiteke.

Gau eskolak azken finean eragin handia eduki dute Euskal Herrian, jende askori euskara ulertzen eta ikasten lagundu diote, baina gaur egun dagoen egoerarekin euskara beherakada batean dago hiztunei dagokionez.

**Erroxe, Haizeder eta Ane**